


# Or piipilean

*Soraluzeko Hamabostekaria* 73. alea 2003ko uztailaren 11a



**EGUZKIPEKO EDERTASUNAREN  
MORRONTZAPEAN**



Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE

## Iragarlearen txokoan: Juan Mari arrandegia

Merkatal plaza, 20590 Soraluze / Telefona 943 75 24 40 - 943 74 03 69

*“Tamalez, Zentro komertzial  
haundixak denda txikixori lekua  
kentzen dabiz ...”*

**Noiz eta zeintzuk zabaldu zenduten arrandegixa?**

Nik bakarrik zabaldu neban. Aste honetan bertan 18 urte egitten ditud arrandegixa zabaldu nebanetik.

**Zegaittik hartu zenduan erabaki hori?**

Nahiz eta barnekaldekua izan (Mendaron jaixotakua eta Elgoibarren bizi), nere ilusina itsasuan arrantzale moduan lan egittia zan. Hiru urte pasata, arrandegixa zabalteko aukeria euki eta probau egin neban. Oso gustora nago Plaentxian.

**Zenbat pertsonak lan egitten dozue arrandegixan?**

Oin momentuan 4 gabit: Mariasun, Maite, Guzmán eta ni.

**Saltzen dozen arraina nun arrantzatutakua izaten da?**

Gehixena Kantabrikuan arrantzatutakua da, baina badare arrain mota batzuk, sardina adibidez, Mediterraneuan hartutakuak diranak.

**“Prestige” petroliountzixaren hondoratziak ze eragin izan dau arrain saltzailiengan?**

Eragin katastrofikua, oso txarra. Lehen gutxi bazeuan, oin hori gertautu ixa ez dao arrainik.



**Zeintzuk dia arrain saltzailia izatiaren alde on eta txarrenak?**

Alde onena jentiarekin harreman zuzena eukitzia eta arraina bera manejatzia, gustora editten doten lana baita. Txarrena berriz, goizeko lauretan esnatu biharra.

**Ze iritzi daukazu zure ofizio honen etorkizun inguruan?**

Tamalez, ofizioa desagertzer a doiala pentsatzen dot. Arrandegi txikixak isten doiaz, oso lan gogorra dalako eta sakrifizio handixa eskatzen dabelako. Zentru komertzial haundixak txikixeri lekua kentzen dabiz poliki-poliki.



## Opor solidarioak

MAIDER GABILONDO

Askok oraindik maletak egin gabe izango dituzue baina gehienok oporretarako planak aspaldi lotuta daukazuela ziur nago. Askok herria zaintzeko asmoa dugunez zin dagizuet lasai asko joan zaitezketela. Baina bromak alde batetara utzita, honako lerro hauetan oporrei buruzko gogoeta batzuk egin nahi dizkizuet.

Asko zarete Soralezetik uda honetan hirugarren mundua deritzon herrialde horietara joatea erabaki duzenak, eta zuen aukera ahalik eta probetxugarriena izan dadin bai zuekiko eta bai bisitatuko dituzuen herrialdeetako biztanleentzako, pare bat gomendio egitera ausartu naiz.

Gehienok bidai agentzia europarrek eskeintzen dituzten "pakete" turistikoak bitartez iritsiko zarete.

Hau aukera ona da bidaiariaren ikuspuntutik begiraturata zeren etxetik irten aurretik, bidaia, hoteleko erreserba, eskursioak eta abar ondo lotuta egoten direlako, eta zergaitik ez, aukera bakarra delako alde zurretik zenbat diru gastatu behar duzun jakiteko.

Baina honek tranpa haundi bat du bidai agentzien partetik, ze modalidade honen helburu bakarra ez da bezeroari zerbitzu on bat ematea, baizik eta bezeroak gastatu behar dituen euro guztiak beraien eskuetan jaustea. Agentzia ospetxuenek eskeintzen dituzten hotelak kate europar edo estatu batuetarrenek izaten dira, eta nazio barruetan erabiltzen dituzten garraio konpainiak, eskursioetarako agentziak eta abarrak ere beraienak izaten dira.

Nazio hauek bizi dituzten segurtasun arazoak aitzakiatzat hartuta, bidaiaria kukiltzen dute agentziek eskainitako aukeretatik kanpo ez ibiltzeko, horrela bidaiariak egiten dituen erosketak, hotelek eskeintzen dituzten dendentan egitea gomendatzen dute, diru aldaketa hoteleko arretagelan bertan egitea gomendatzen dute, eta beste hainbat trikimailu bidaiariaren aurrekontuari etekinik haundiena ateratzeko. Benetan, preziotan eta aldaketetan sekulako lapurretak egiten dizkiote bidaiariari.

Bidaiariak gastatuko duen dirutik, hoteletan lan egiten duten langileen soldata urria da bertako jendeari gelditzen zaion bakarra. Kontuan hartu behar da ardurazko karguak normalean atzerritarren esku egoten direla.

Kasu batekin ezin bada orokortu ere, daturtat emango dizuet Dominikar Errepublikan dauden hotel gehienak zergarik gabeko "zona franca" deritzotenen kokatuta daudela. Horren ondorioz, lurralde horretako erakunde publikoek ez dute zergen bitartez etekin haundirik lortzen bertarako turismoak europar ematen dituen dirutzetatik.

Herrialde hauetan zoritxarrez biztanlegoaren gehiengoa pobrezia jota bizi da, eta kasu askotan turismoa eta bere inguruko negozioak bihurtu dira famili askoren diru iturri bakarra. Badira familia asko, beraien negozio txikiak sortu dituztenak turistei zerbitzuak eskaintzeko, jatetxeak, tabernak, hotelak, dendak, baina guzti hauek kompetentzia ezleial bat dute, atzerriko agentzien turismo guneak,

eta "todo incluido" deritzaien programak. Eskulangileek esaterako, kasu askotan, janari plater baten balioaren truke beraien eskulanak saltzen dizkiete turistei.

Pobrezia, garapen pertsonalerako aukerarik ezak, hezkuntza maila baxuak, eta konsumismoak sortu dituen premia faltsuek, turismoaren inguruan azpi ekonomia garrantzitsu bat sortu dute, sexuaren inguruko merkatura. Emakume eta haurrak izaten dira merkatu honen biktimarik haundienak.

Benetan tamalgarria da turismoak mobiltzen duen diru guztiarekin, herrialde pobre hauetan garapenerako bide izan beharrean arazo larriagoen sortzaile izatea. Ehin haundi batean turisten esku dagoenez turismoa familia hauentzako diru iturri eta garapenerako bide bilakatzea, animatu nahi zaituztet herrialde hauetara zoaztenerako hiru lau gomendio gogoan hartzera:

\* Zuen euroak bertako familien negozioetan gastatu itzazue.

\* Erregateatzea ohitura bada ere, neurria hartu ezaiozue, ez abusatu, kontutan hartu Corte Inglesean ez duzuela erregateatzen.

\* Azkenik kontutan hartu hango haurrak, hemengo haurren modukoak direla eta beraiekin harreman sexualak izatea haurren aurkako abusu kontsideratzen dela, eta beraz, delitua dela bai han eta bai hemen.

Besterik gabe, lagun indigena hegoamerikar batek zioena errepikatuko dut:

"Guk atzerritarrei eskatzen diegun bakarra da; duintasunez tratatu gaitzela."

## Erreportaia

*Uda heldu da eta udarekin batera eguzkia eta beroa ere bai. Praka eta gona motxak, tirantedun nikiak... azala beltxaran eramatea dago modan eta soralezetar askok, hondartzaraino joan gabe, herri inguruko zelai eta txokoetara jotzen dute eguzkia hartzera.*



**Argitaratzailea:**

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefona 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU

pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre,

Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon

Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid,

Eduardo Pombar eta Egoitz Unamuno

**Publizitatea:** Ane Yabar (943 75 13 04)

**Logotioa:** Jon Gabilondo

( 943751304 tel. )

**Banaketa:** Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop. **Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## Zorion agurrak



**Irati Intxaurre**  
Ekainaren 9a  
ZORIONAK!!  
Lasaitu piskatxo bat  
mesedez. Zure guraso eta  
senidiak



**Oier Perez**  
Ekainaren 9a  
ZORIONAK!!  
Oso mutil jatorra zaralako.  
Etxekuen eta Enekoren  
partez.



**Irene Unanue**  
ZORIONAK!!  
Munduko aktorerik  
onenarendako!  
Aita, ama, anaia eta  
lagunen partez.



**Gorka Prieto**  
Uztailaren 22a  
ZORIONAK!!  
Ia noiz edo noiz azal-  
tze haizen! zai gauaz!  
Pil-pileanekuen partez.



**Ignazio Borinaga eta  
Asier Ugarte**  
Uztailaren 4an  
Zorionak! ohorezko  
matrikulagaitik.  
Etxekuen eta Pil-pile-  
anekuen partez.



**Maribel Zabaleta**  
Uztailaren 30a  
**Jabier Etxabe**  
Uztailaren 18a  
ZORIONAK!!!  
Segi beti bezain langile eta jator.  
Etxekuen partez.

## Gutunak

### Komarkako arma museoaz

Behin Ramiro Larrainagaren azken liburuaren aurkezpenaren egon nintzen Eibarren eta Sorluzeko alkateak esan zuen Sorluzen ezinezkoa dela, tekniko edo holakoren bat, halako museo armero bat egitea. Baina erabat ezinezkoa ez da, hor dago Erregetxea, Francoren garaian edo, amaieran, bota zutena, eta harri landuzkoa zen oso palazio ederra. Arkitekto batek egin ahal izango lituzke haren planoak eta, konpromiso gabe, zerotik berreraikitze kostua kalkulatu. Komarkakoa izango litzatekeela pentsatuz diru laguntzak toki ezberdinetatik, Bruselatik ere, etorri ahalko lirateke.

**Roman Garmendia**  
N.A.: 15356909

### Udaletxe irekia?

Legealdi berrirako, funtzionamendurik egokiena bilatzeko, guztien artean adosteko ahalegina egingo zuela esan zigun Sodupe jaunak herriko aldizkarian. Gainontzeko indarrekin adostasunak bilatzeko ate guztiak zabaliz zeudela esan bazuen ere, ate gabeko etxea bihurtu zaigu Udaletxea eta EAJ-EA koalizioa, zeren, zure ahalegina gezur hutsa besterik ez da izan.

Ia seirehun plaentxiatarren ordezkariak kontuan ez hartzea adostasuna da? Besteen ekarpenen gainetik, dauden ardura guztiak zuen artean banatzea

adostasuna da?

Sorluzeko ASKATASUN HAIZEAK herri plataformaren eskua luzatuta izan duzue Udal eraketa batzarrean adierazi genuen bezala, baina zuek uko egin diozue eskeintza horri.

Sodupe jauna, hauteskunde garaian eta antzerakoetan, ondo baino hobeto saldu izan duzu gestio eta funtzionamendu ireki eta zabal baten aldekoa izango zirela, baina errealitatea beste bat da. Hasieratik guztiz kontrakoa den erabakia hartu duzu, hau da, Udaletxe itxi eta baztertzailea eratzea. Ez da ez hasiera ona.

Udalean egingo duzuen kudeaketaren jarraipen zehatza eta zuzena egingo dugu aurrerantzean, eta ez dizugu eskerrak emango Sodupe jauna batzorde informatiboetara gonbidatzeagatik, gure eskubidea delako, nahiz eta zuk, zure jauntxo paperean, mezede bezala saldu.

Herrian sustraitutako programa gauzatea nahi dugu eta horretarako sorluzetarren hurbiltasuna ezinbestekoa dugu. Beraiekin eta beraientzat landuko ditugu proposamenak, Udaletxe barruan itxi dizkiguzuten ateak kanpotik zabalduz.

Zuek, hamabostero egiten ziren informazio batzordeak, agian larregi ez nekatzeke, hilean behin egitea erabaki duzue. Herritarren eskubideak defendatzea izan eta izango delako gure saririk onena.

**Sorluzeko Askatasun Haizeak Herri Plataforma**

## Merkatu Txikia



### LAN ESKAINTZAK

\***Pertsona arduratsua bat behar da uztailaren 28tik irailaren 2arte, goizero 40 minutuz Sorluzeko BBWa garbitzeko. 943751166**

\***Pertsona bat behar da kafetegia batean luzaroan lan egiteko. 943 78 30 59 (Oñati)**

\***Lehen mailako ile apaintzailea behar da Bergaran.667772768**

\***Estetizista bat behar da Nectar natur kosmetika dendan . 97 379 99 38**

\***Dekoratzalea behar da debagoieneko altzari denda batean gutxienez bi urteko esperientzia duen. Bidali curriculuma Arrasateko 225 PKra**

\***Neska edo mutila behar da, asteburuetan txandaka tabernan lan egiteko. 943 74 28 97**

### LEHIAKETAK

\***Testamentu gutunen lehiaketa, Bolo-Bolo aldizkariak antolatuta.** Gutunek euskaraz idatzita egon behar dute. Urriaren 10a baino lehen honako hlebidea bidali behar dira: bolobolo@euskalnet.net

### BESTELAKOAK

\***Karabana berria salgai.** Moncayo markakoa. 943 74 30 98

\***Edertasun saloia traspasatzen da** Elgoibarren. 943 74 16 33

\***Sehaska (bigarren eskukoa) eta etxeko parkea erosiko nituzke.** 620513425

\***Apartamentua ematen da errentan** Levanteko hondartzan, irailan. Igerilekua. 945 21 34 70.

\***Donostia. Etxebizitza ematen da errentan** abuztuko bigarren hamabostaldirako. Zurriolatik oso gertu. 943 77 21 28

### jaixotakuak

Maialen Alonso Pescador  
Elena Suañez Pinto

### ezkondutakuak

Oier Aranzeta / Miriam Goenaga  
Maria Teresa Rivero / Carlos Joaquín  
Pedro Galarraga / Laura Garzia



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)

[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

**ARRANO**  
*tabernia*

Telefona 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK  
**etxera**

## Zer irizten dotsazu?

*Gauza jakina da bizi garen gizartean beltxaran egotea estetikoki ongi ikusia dagoen zerbait dela. Azken urteotan eguzkia hartzeak dakartzan arriskuez ohartarazi gaituzte ikertzaile eta adituek. Kalera jo dugu jendeak gai honen inguruan duen eritzia jaso nahian.*

## Eguzkia hartzeko ohiturarik badaukazu? beltxaran egotiaren inguruan ze eritzi?



**Roberto de la Rosa**  
32 urte  
iturgina  
Playara juaten naizenian emon egitten dosta. Kremia erretzen naizenian emoten dot. Beti zare hobeto kolore pixkatekin.



**Nagore Zabala**  
27 urte  
komertziala  
Gutxi hartzen dot. Noizian behin hondartzara juaten naiz. Normalian kremia emoten dot babesteko. Kolore pixkatekin hobeto sentitzen naiz.



**Inma Matute**  
39 urte  
ofiziniaria  
Ez, ez jata gustatzen, agobiatu egitten nau. Behin Zarautzen lo hartu neban eta orduantxe beltzitsu nintzan pixkat. Beltxaran egotia politta da, baina beste gauza batzuk bebai.



**Jesus Guridi**  
27 urte  
elektrizitate teknikarixa  
Ez, plaiara juaten naizenian pixkat. Ni ez naiz zaintzen, zaindu egitten nabe. Beti da politta pixkat beltxaran egotia baina neri ez jata gustatzen, ez dot berua aguantatzen eta.



**Aitor Mendizabal**  
34 urte  
enkofradoria  
Ez daukat ohiturarik baina eguzkittan lan egitten dot eta beltzitzen naiz. Ez dot sekula kremarik emoten. Beltxaran egotia eta kontu horrek lelokerixak pentzatzen jataz.



**Arantxa Amezua**  
47 urte  
irakaslia  
Ez daukat eguzkixa hartzeko ohiturarik, kaltegarria dalako. Gaztetan agian bai, baina adinarekin tontokeri bat iruditzen jaku. Adinarekin polittago gare zuri.



**Belarrak**

**Loradenda eta belardenda**

*Erosketak etxera eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11

Instalazioak  
Berrikuntzak



**Kiru**

**Muntaiak S.L.**

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

## Maltzagara bidea ez da itxiko



Eibar-Gasteiz autobidearen lehenengo zatia urrian zabalduko dute, Bergaratik Maltzagaraino doana (7 km). Oraingoan, bi errei bakarrik zabalduko dituzte. Beste zubibideko arazoak konpontzen dituztenean, datorren martxoan, lau erreiak zabalduko dituzte. Konponketa lanak irauten duten bitartean, aldundiak ez du Maltzatik Sorluzera bitarteko bidea ixterik aurrikusten, bide mozketak motzak gerta litezkeen arren. Autobidearen gaineko zehaztasun guztiak Bergaran inauguratu zuten Ondartzako interpretazio Zentroan daude ikusgai, martitzenetik domeketara bitartean.

## Hiru sute herrian



Joan den asteetan hiru sute izan dira herri inguruan. Azkena, martitzenean Aginaga baserri inguruan. Udal-tzaingoak jakinarazi digunez, "arduragabekeriak eraginda".

## Ikastetxea berritzeko 50 miloi gehiago

Plaentxi Herri Ikastetxeko zuzendaritzak jakinarazi digunez, ikastetxea eraberritzeko lanak aurrikusita zegoena baino 3 hilabete gehiago luzatuko dira. Lanak otsaila-martxorako amaitzea aurrikusten dute. Aurrekontuak 50 miloiko igoera izan du.

Jantokiari dagokionez, datorren ikasturte hasieran jakinaraziko omen zaie gurasoei noiz zabalduko den.

## Txurrukatik Osumara bideko landareria



Txurrukatik Osumara doan bidea landareriak erdi itxita dagoela jakinarazi digute inguruko bizilagun batzuk. Debemenek jakinarazi digu, makina libratutakoan garbituko dutela.

## Berriaren alde 6.500 euro batu dira dagoeneko herrian

Azken asteotan, kuadrila norbanako nahiz enpresen aldetik emandako laguntzaren, 6.500 euroko muga gainditzea lortu da dagoeneko. Irudietan, 300 euroko akzio bana erosi duten herriko bi kuadrila eta beste hainbeste egin duten Lan Banaketa lantegiko langileak. Akzio salmentarekin jarraitzeaz gain, herriko jaietan dirua biltzeko ekimenak ere prestatuko ditu herri batzordeak.




**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**ELIZpE**



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
9 4 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Sorluze

## Batzorde osaketa istilutsua Udalean

Joan zen asteleheneko ezohiko Udal Batzarrean osatu ziren Udaleko Gobernu Batzordea eta batzorde informatiboa. Proposamena botaziopean jarri zen eta EAJ-EAko 6 zinegotzien aldeko botoak jaso zituen, SAHren aurkako hiru eta PPren aurkako botuarekin. PSEE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen. Bozketaren ostean, Askatasasun Haizeak Udal Gobernuaren osaketa "itxiarekiko" bere desadostasuna azaldu eta alkatearen "funtzionamendu irekiaren inguruko esanak gezur hutsa" izan direla salatu ostean, ezker abertzaleko kide batzuk, "Sudupe, jauntxokeririk ez!" zioen pankarta atera zuten. Pankarta erretiratzen ez zela ikusita, alkateak batzarra zinegotzien gelan egitea erabaki zuen.

Udal Gobernu osaketa eta ardura banaketa honela gelditu da azkenean :

### Enplegu eta pertsonal batzordea

Oskar Gabilondo

### Udal hirigintza, lan eta zerbitzuak

Iker Aldazabal

### Hezkuntza eta kirol batzordea

Maite Oregi

### Euskara Batzordea

Nerea Perez

### Nekazaritza eta ingurugiroa

Iker Aldazabal

### Osasun, ongizate eta emakumearen arloa

Mirari Olertza

SAHren "itxikeri" salaketari erantzunez, alkatearen esanetan, "gaur egun bizi dogun alderdixen arteko frentismo egoeran, ezinezkoa da adostasun senduetara heltzia, eta horregatik gobernatuko dogu EAJ-EAko zinegotzixok, bi herritarretatik batek emon doskun eskubide osoz gainera."

## Ettxerat-en konzentrazioak hileko azken barikuetan

Euskal preso politikoen senide eta lagunek osatzen duten Ettxerat elkarteak, hilabeteko azken ostiraletan konzentrazioak egitera deitu ditu herritarrak. Konzentrazio hauen helburua da, "presoen eskubideak bete daitezen eskatzea" eta gaur egun "jasaten duten egoera eskubide murrizketa krudela" salatzea. Ekaineko konzentrazioaren ostean, uztailearen 25 arratsaldean egingo da hurrengoa.

## Autobus zerbitzua bariku gauetan ere

Uztailearen 4an hasi eta irailaren 26ra bitartean, bariku gauetan ere autobus zerbitzua izango dela jakinarazi du PESAk. Eibarrerako autobusak: 00:35, 02:05, 03:35, 05:05 eta 06:35etan izango dira. Bergaratik-Gasteizerako eta Eibartik Mutriku eta Azpeitiarako autobus zerbitzu bereziak ere izango dira.

## Balkoi ederrenaren saria Lurdes Vazquezi



Aurtengoan ere Ezoz Etorbideko bizilagun batek lortu du Debegesak antolatzen duen balkoi edertuen lehiaketako saria, Lurdes Vazquez Barrenetxeak.

## Sudupe Debegesako lehendakaria

Joan den ekainaren 30ean izendatu zuten, Alberto Sudupe Soralezeko alkatea, Debegesako (Debabarreneko Garen Ekonomikorako Elkarte) lehendakari. Ardura hau, egungo legegintzaldia amaitu bitartekoa izango da eta Sudupek berak adierazi digunez, "erabakigune eta informazioguneetan egotia, onura asko ekarriko dotsaz Soralezuzeri".



## Udalekuak ingelesez ikasteko



Udaleko hezkuntza sailak antolatuta, dozenaren bat neska mutiko "Play & Say" ikastaroa egiten dihardute institutuan. 10 Egunetan zehar ingelesez hitz egin behar dute, goizero good morning!. Have a nice holidays! youngs!

## TXOKO KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behean. telf: 943751780



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

# Eguzkipeko edertasunaren morrontzapean bizi gara?

Uda heldu da eta udarekin batera eguzkia eta beroa ere bai. Praka eta gona motxak, tirantedun niakiak... azala beltzaren eramatea dago modan eta sorraluzetar askok (emakumeak gehienak), hondartzaraino joan gabe, herri inguruko zelai eta txokoetara jotzen dute eguzkia hartzera.



San Martzial arratsaldea eguzkipean igarotzeko leku paregabea da. Toailak eta kremak hartu eta arratsaldero joaten da jendea.

## Eguzkizaleen gunea; San Martzial

Beltzaren jarri nahi duenak, ahal izanez gero behintzat, gorputz osoan hartu nahi izaten du kolorea eta horretarako ezinbestekoa da beltzitu nahi diren gorputzeko atal horiek eguzkiari bistaratzeara. Hori dela eta, toaila gainean etzanda eguzkia hartzen duen jendeak, oinezkoen joan-etorritik babesean dauden leku ero-soetara jotzeko joera du. Horrela, uda garaian San Martzial ermita aurreko zelaia arratsaldero betetzen da eguzkizalez. As-teartean esaterako, eguzkia hartzen zeuden emakume eta haurrez beteta aurkitu

*“Lotsatienak etxeko balkoian hartzen dute eguzkia eta zortea duenak etxeko terrazan”*

genuen San Martzialgo zelaia. Haurrek, nagusiek ez bezela, baserriko potzu inguruan zapaburuak harrapatzen hartzen dute atsedean eguzkiaren berotasunetik.

San Martzialez gain badira Sorraluzen eguzkia hartzeko aproposak eta ohikoak diren zenbait gune. San Andres da horie-

tako leku bat eta mendigainera ere jende askok jotzen du, ibilalditxo bat eginaz, bide batez eguzkipean kolore pixkat hartzera. Badira bestalde, mendiko basoarteko zelaigune ezkutuetan eguzkia hartzen dutenak ere baina tamalez gero eta urriagoak dira horrelako guneak, gehienak sasiak hartuak daude eta. Lotsatienak etxeko balkoian hartzen dute eguzkia eta zortea dutenak etxeko terrazan.

Eguzkipean egon ostean kanpoan bainu bat hartzeko aukerak urriagoak dira. Ibaia zikina izanda, kiroldegiko piszina estaliak eta errekaak dira aukera

Argitalpen honen laguntzaile



**kutxa**  
zuri esker

## Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



bakanetakoak. Kiroldetik piszinak bakarrik izango dira zabalik, goiz eta arratsaldez astelehenerik zapatuta eta abuztuaren 1etik 25era itxiko dituzte ateak.

#### Erradiazio maila gurean

Adituen esanetan, eguzkia hartzea osasungarria da giza-organismoarentzat baina beti ere bakoitzari dagokion neurria errespetatzen bada. Farmazian azaldu digutenez, inguru hauetan (Deba bailaran) izpi ultramoreen erradiazio maila oso altua da (8koa) eta beraz guztiz komenigarria da babes neurriak hartzea. Azaleko Azal argia dutenei muturreko babesa ematea aholkatzen zaie, azal ilunekoentzat berriz, 30eko graduaziodun babesa ematea gomendatzen dute. Horrekin batera badira eguzkia hartzerakoan arazorik ez izateko gogoan hartu beharreko gomendio batzuk ere:

- *Eguneko orduak.* Eguzkiak indar handienez jotzen duen orduetan, 12:00etatik 16:00etara ez da komeni eguzkitan jartzetik.

- *Lehen eguzki-saioetan* ez denbora larregi egon.

- *Altitudea.* 300 Metroko, %4handitzen da eguzki erredurak izateko arriskua.

- *Lainoak.* Lainotutako egunetan ere erretzeko arriskua izaten da. Lainoek erradiazioaren %10 besterik ez dute gor-

### “Hasierako faseetan detektatuz gero, kasuen %50 sendatu egiten da; funtsezkoa da beraz, azkar antzematea”

detzen.

- *Islatutako argia.* Ur tantatxoek lupa moduan eragiten dute azalean.

- *Kanpoko jarduerak.* Kanpoko jardueraren bat egiten dihardugunean, batez ere izerdia botatzekoak badira, kirola edo lan neketsuren bat esaterako, komenigarria da babestea.

- *Eguzkitarako babesgarria.* Babesgarria eguzkitan jarri baino ordu erdi aurretik jarri behar da, oparo eta azalean ongi zabalduz.

- *Deshidratazioa.* Eguzkitan ordu asko igaro behar baditugu, komenigarria da aldizka ura edatea.

- *Arrisku taldeak.* Kontu gehiago izan behar dute, haurdun dauden emakumeek, haurrek, azaleko arazoak dituztenek, azal zuri edo sensibleagoa dutenek, medikazioaren bat hartzen dutenek eta filtro kimikoei alergia dietenek.

- *Eguzkia hartu ostean* dutxa bat hartu eta azala hidratatu eta indarberrituko duen sustantziak igurtzitzea.

#### Azaleko minbiziaz

Eguzkiarekin egindako gehiegikeriak sarriegi errepikatzeak azaleko minbizia eragin dezake. Gaixotasun hau bi motatakoa zan daiteke: epilioma edo melanoma. Lehenak gaixoen %95ari eragiten dio eta gehienetan 50 urtetik aurrera azaldu ohi da, eguzkitan denbora asko ematen duten pertsonetan. Bigarrena, melanoma, azaleko minbizi kasuen %5ean besterik ez da detektatu, baina tumore kantzerigeno horren eraginez hiltzen da gaixoen %65<sup>a</sup>. Azken balantzearen arabera, melanomaz atenditutako gaixoen kopuruak %7ko igoera izaten du urtero. Melanomak badu abantaila bat beste minbizi moten aldean: beti kanpoan azaltzen da eta beraz, lehene momentutik ikusi eta berehala detekta daiteke. Mantxa edo orin asimetriko gisa agertu ohi da (ertz irregular eta definitu gabeekin), kolore uniforme eta aldakorrekoa; diametroa zentimetro bat baino handiagoa eta handituaz joaten da. Hasierako faseetan detektatuz gero, kasuen %90 sendatu egiten da; funtsezkoa da, beraz, azkar antzematea. Horretarako, norberak edo konfidantzazko norbaiten laguntzaz gorputz guztia begiratzeari izaten da onena.

Badakizue, eguzkia hartzea ondo dago, baina behar diren neurriak hartuta.



Solariumera joateko aukera ere badago. Erabiltzaileen esanetan eguzkia hartzea baino erosoagoa eta eraginkorragoa da.



Aste honetan bertan joan dira udaleku irekietako gaztetxoak Eibarko igerileku irekietara. Eguzkia hartzeko, astirik ere ez!



**Limpiezas**

**Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

Limpiezas  
industiales

**GILA TABERNA**

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

# Marije Intxausti EHNE-koa

“Erreforma baserriarren merkatuarendako azken aizkorakada izan daiteke”

EHNE Sindikatua Euskal Herri oso-ko baserriarrez osatua dago, baita Soraluzeko baserriarrez ere eta lehen sektoreari dagozkion beharrian eta arazoak gizareratzea da bere eginkizun nagusia. Europar Batasunak onartu berri dituen nekazaritza erreforma eta transgenikoen lege berria dela-eta, erabaki hauek gudan izango duten eragina nolakoa izango den jakin nahian EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) sindikatura jo dugu. Marije Intxausti EHNEko lehendakariarekin hitz egin dugu bi gai hauen inguruan eta argi pixkat egin digu gure herriko lehen sektorearen egoera ilunaren zergaitiak azaleratu dizkigunean.

## Nolakoa da Europar batasunak onartu berri duen nekazal erreforma?

Erreforma asko egin dira azken urteotan. Egin den azkena, PACaren erreforma, orainarte egin diren politika okerrak indartzera dator. Orainarte bultzatu den nekazal politikak oso prezio baxuetan produzitzera bultzatu ditu baserriarrek eta hori “laguntzekin” konpentsatu dute. Erreforma berriak diru banaketa hori perpetuatzen du, dirulaguntzen %80<sup>a</sup> produktoreen %20ak jasotzea. Gainera, lege berriak lur jabeen onurarako izango da, kontuan hartuko dena lur jabea eta lur hedadura izango da eta ez produzitzen dena.

Azken baten, mundu mailako merkatu baten gaude sartuta. Herrialde batzuk merke produzitzeko ahalmena dute, botere gehien duten estatuak dira baita ere. Ze kalitatezko produktuak ekoizten diren ez da kontutan hartzen. Erreforma hau baserriarren merkatuarendako azken aizkorakada izan daiteke.

## Produktu transgenikoak etiketatzek ze eragin izango du?

Etiketatzearen kontua positiboa da berez baina produktu transgenikoekiko



## Marije Intxausti EHNEko bulegoan.

moratoria kentzeko pauso bat da. Informatuta egongo garenaren goxokiarekin merkatua zabaltzen zaie transgenikoei.

Gaia sakonetik aztertu beharko genuke. Politika guztiak, boterea dutenak boterea izaten jarraitzeko egiten dira, kontrola mantentzeko. Guk diogunean zentzuzko politika bat egin behar dela; kalitate kontrolak egin behar direla, elikaduraren ziurtasun bat izan behar dugula... teoriarik denok gaude ados baina praktikan guztiz alderantzizko gauzak egiten dira. Behi eroen kasuak azaleratu zuen arazoa, merke ekoiztu nahi da baina edozein modutara.

Transgenikoak botere horrekin jarraitzeko kate begi zoro honetako beste maila bat besterik ez dira. Transgenikoak eraldatutako produktuak dira eta laboratoriorik eta farmazeutikako multinazionalak dute kontrol osoa. Hego Amerikako herrialde askotan transgenikoei lan egitera behartzen dituzte eta gero euren menpe jartzen dituzte.

## Hemengo administrazioak zela jokatzeko du?

Jaurlaritzak eta aldundiek badutebertara egokitutako nekazaritza politika bat egiteko ahalmena. Orainartean ez da egin. Gipuzkoan urtean 100 baserri ixten dira eta instalatu 6. Esnearen produkzioan %80<sup>a</sup> jeitsi da azken urteotan. Bertara egokitutako nekazaritza politika bat egin balitz ez zen horrelakorik gertatuko. Bertara egokitutako produkzio eredu bat behar dugu, inguruarekin oreka bat mantenduko duena eta lanpostuak segurtatuko dituena, hori bultzatuko duen politika bat. Baserri ixte hau gelditu nahi badugu, erreflexio sakon bat eta aldaketa ezinbestekoa da. Adibide moduan, Euskal Autonomi Elkartearen ez da sekula nekazal sektoreko hauteskunderik egin, Jaurlaritzaren kompetentzia izan arren. Guk proposamenak helarazten ditugu baina erantzunak oso eskasak izan dira.

Produktuorik gabeko baserriak gelditzen ari zaizkigu, baserri hilak. Politika estruktural orokor eta serio bat egin behar da, bestela jai daukagu.

**JAVIER ALONSO ZELAIETA**  
434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOAK



**ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613**

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      tf: 943752150  
138 Postakutxa      Faxa: 943752118

**SORALUZE**

## San Andres jaiak hasiko dira bihar



San Andrestarrak gogor lan egiteko prest daude egunotan San Andredera hurbiltzen direnek ahalik eta gehien gozatu dezaten.

Larunbat gaueko 23:00etan hasiko dira auzoko jaiak **Anje Duhalde bakar-lariaren emanaldiarekin**. Ondoren, Egan erromeri taldeak alaituko duen dantzaldiari emango zaio hasiera. Gauerdian, **San Andres bola txapelketa** jokatu da. Hurrengo egunean, igan-

dean, **12:00etan** izango den **Meza Santuarekin** hasiko da egitaraua. Meza ostean, **herriko pelotari federatuek eta afizionatuen partiduak**. Pelota partiduak amaitutakoan etorriko dira Urrats dantza taldea eta Eizagirre eta Silbeira bertsolarien saioak ere. Ordubi t'erdia aldera, bazkari legea egiteko tartetxoa. Arratsaldean, 18:00etan emango zaio hasiera lehenengoz jokatu den **San Andresko Harria Txapelketari**. Txapelketan parte hartzeko; Soraluzen jaiola edo bertan bizi dena izan behar du. Parte hartzaile bakoitzak 5 minutu izango ditu 80 kilo inguruko harriari heldu eta ahal bezainbeste altxaldi emateko. Jasotzen duten guztiek afaria izango dute elkartean eta jasoaldi gehien ematen dizkionak 120 €ko saria. Aurretik Aimar Irigoienek eskeinitako erakustaldia izango da. Txapelketaren ostean, pony eta zezen txikiak askatuko dira plazan. Gainera, egun guztian zehar **Mendotz eta Bixkai trikitilariak** ibiliko dira inguruan.



**Bat baino gehiago urreratu da igandean egingo den txapelketarako harria probatzera. Ia ba, sari bikainak dare ta!**

Asteleheneko jai eguna batez ere auzokoendako prestatutako ekitaldiz osatutakoa izango da. Eguerdiko hamabietan auzoko hildakoan oroimenez eskeinitako meza ospakizuna egingo da ermitan. Ondoren, 13:00ean, gaztetxoendako jokuak hasiko dira Joxe Gardoki soinu-jolearen laguntzarekin. Ondoren Egaña eta Lizasok bazkaritarako gonbidapena egin eta frontoiaren babespean bazkalduko dute urreratzen diran auzotarrek.

## RKzulo ren arrakasta izugarria



Arratsaldean, musikari talde batek, herrian dagoen lokal gabezia salatu zuen.



Musikariek era guztietako doinuak interpretatu zituzten, maisutasun handiz.



Gaztetxea jendez gainezka izan zen gau guztian zehar. Sartu ezinda ere bai!



Andoni Calles izan zen gaueko izarretako bat. Abeslari denak izan ziren magikoak.

## Zubia-ren atzezlana uztailearen 19an



Soraluzeko Zubia antzerki taldeak, "La casa de Alba Bernardez" antzezlana taularatuko du uztailearen 19an. Kiroldegian izango da emanaldia, gaueko 22:30etan hasita. 3 Euroko sarrerak salgai daude dagoeneko, Goiara lurrindedan eta Arane kiroldegiko tabernan. Kaka asko!

## Danborradako oharra

Danborradako antolatzaileek dei egiten diete danborradan parte hartuko duten herritarrei, datorren martitzenean (sukaldari eta soldaduak) eta eguaztenean (gremioetakoak) arratsaldeko 19:30etan, pasatu daitezela ikastolatik erropak jasotzera.

## Futbito txapelketa

### “Malas hierbas” finalaurrekoan



Urtetan antolatu gabe izan eta gero, aurten berriz jokatzeko ari den futbito txapelketa badoa aurrera. Dagoeneko jokatu beharreko 5 partiduetatik 3 jokatu dituzte talde guztiek eta momentuz

“Malas Hiervas” taldea da finalaurreko-etarako sailkatzea lortu duen talde bakarra. “Malas Hiervas” bere lehenengo multzoko sailkapenaren buru dago 3 garaipen eta 9 punturekin eta atzetik “Los Suversivos” taldea dator 7 punturekin. Bigarren taldean estuago daude kontuak. “Babajana” taldea doa lider, 9 punturekin eta atzetik “Mendotz”-en taldea dator, hau ere 9 punturekin. Atzerago datoz “Sapuak” 6 punturekin, baina hauek ere badaukate oraindik finalaurreko-etarako sailkatzeko aukera. Orainartean bezala partidua larunbat arratsaldetan jokatu dira.

## Futbola

### Plentxiarrak Bergarako finalean



Soraluzeko gaztetxoan mailako lau taldek Bergarako futbol lehiaketan parte hartu dute aurtengoan ere. Josune Egaña

atezain duen taldeak bere multzoko finalerako sailkatzea lortu du eta atzo jokatua izango da bergararren aurka.

## Mendizaletasuna



### Bi plaentxiar Aizkorriko igoeran

Joan zen asteburuan, Zegama-Aizkorri Zegama mendi maratoian parte hartu zuten Karlos De Cos eta Iñaki Burunza plaentxiarrek. Ibilbideak 42 km zituen eta biek ere 6 orduetik gorako denborak egin zituzten. Karlosek 6.36 eta Iñakik 6.48. Bejondeizuela!

## Pelota txapelketa

### Final laurdenak jokatuko dira asteburuan

Zapatuan eguerdiko 12etan jokatuko dira finalaurreko lehen bi partidua; Joseba Gallastegi-Portu III. / Zigor Alberdi-Xabier Arribillaga eta Azkona-Portu I. / Bizkai-Gorka Varela. Domekan, eguerdiko 13:00ean; Jon Heriz-Gorka Bollar / Joseba Exposito-Iraultz Arluziaga. Asteazkenean jokatuko da azken finalaurreko; Andoni Calles-Aitor Unamuno / Ekaitz Uzinasier Fernandez. Finalaurrekoak datoren asteburuan jokatuko dira eta finala herriko jaietan txupinazoaren ostean kiroldegiko frontoian.

## Pala txapelketa

### Ane Ihabar eta Juana Mari Cid txapeldun

Ekainaren 27an jokatu Soraluzeko Emakumezkoen lingo Pala Txapelketaren finala San Andresen. Ane Ihabar eta Juana Mari Cidek nagusitasun handiz lortu zuten garaipena, Ireber Iriondo eta Maite Etxeberriari 30 eta 9 irabazi eta gero.

## Atletismoa

### Azkona A Coruñan

Arrate Azkona soraluzetar atleta gazteak, larunbat honetan A Coruñan jokatuko den Espainiako Txapelketan parte hartuko du. Junior mailako altura eta jauzi hirukoitzeko frogetan lehiatuko da eta Euskadikoan baino zorte hobea izateko itxaropenarekin doa.



# Marga Cabezón

*"Beti euki dot gogua danborradan jotzeko"*

Badira urte batzuk herrixan berriz danborradia eantolatzen hasi zirala. Astearte arratsaldian Pil-pileanek bisitatxo bat egin dotse frontoian ensaiatzen zebizen sukaldari eta soldadueri. Sukaldarixen artian Marga aurkitu dogu. Gustora dago danborradan parte hartiaz. Herriko gauzetatik gehixen gustatzen jakonetako bat dala esan dosku, baina hori baino gehixao gustatzen jako herri txiki honetan daukagun elkarren arteko harreman estua.

## Izen abizenak, edadia ta lanbidia.

Marga Cabezón naiz, 43 urte dittut eta fruterixan egitten dot lan.

## Zer gustatzen jatzu egittia zure denbora librian?

Pasiatzia eta irakurtzia gustatzen jata.

## Liburu bat gomendatzekotan, zein aukeratuko zenduke?

Ba ointxe irakurtzen naguana, Terency Moixen El Arpista Ciego.

## Gustoko menua

Arrautza frijittuak patata frijittuekin izugarri gustatzen jataz. Edateko arda on bat.

## Nora, zeinekin eta zetara?

Mendirra senarra eta seme-alabekin pasiatzera.

## Hiru desio.

Osasuna, nere seme-alabak euren bizi-modua ondo egittia eta bakia.

## Zenbat urte daroiazu danborradan?

Oin dala 4 urte sartu nintzan. Txiki-txikitatik gustatu izan jata eta beti euki dot gogua bertan sartzeko.

## Ze baloraziño egitten dozu danborradian inguruan?

Oso ona, oso gustora nabil. Baina pena bat da azken urtiotan gero eta jende gutxiao gabizela; jentia animau egin biharko litzake, herrirako gauza politta da eta. Ezin dot ulertu jentia zelan ez dan animatzen, hemen oso giro ona daukagu eta.

## Jaixak be gainian dittugula, zelan bizi dittuzu?

Nik oin lasaixao bizi dittut, nere seme-alabak urtetzen dira ni baino gehixao. Programaziñotik zeozer azpimarratzekotan danborradia aukeratuko neuke,



**Marga Cabezon**

jaixetako ekintzarik onena eta polittena pentsatzen jata eta.

## Oporretarako planen bat?

Oindiokan ez dakigu seguru, baina seguruena senarra eta bixok Piriniuetara juango garala.

## Ze da Soraluzek daukan gauzarik onena?

Danok alkar ezagutzen dogula eta kalian beti bateron bati agur egitten

## Bertso Begiz

Margak badaki zer dan danborra kalerik kale jotzia, ezagun eta ezezagunen animuak jasotzia. Nahiz politta dan oso! jentia beti paso! ta zaila da ulertzia, zela dan horren gauza gaiztua jentia parte hartzia.

*Etxebarri*

*(Doinua: Iparagirre abila dela)*

dotsazula.

## Anekdotaren bat kontauko al dotsezu Pil-pileaneko irakurlieri?

Oin dala urte dexente Madrileran jua ginan eta nere semia txixixa zan orduan. Kaletian gindozela harrittuta esan zotan han jentia alkarri ez dotsala barbarik egitten. Hau egixa da, eta Soraluzen behintzat harreman ona daukagu.



## SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**Gaztelupe  
taberna**

tel: 943 75 20 81

## Argazki zaharra



## 1.967ko danborrada

Argazkian, 1.967ko danborradan Allegro elkartiak kaleratu zeban karroza. Karrozan doiazen andereño xarmanten izenak honenek dira (eskuinetik ezkerre): M<sup>a</sup> Anjeles Jauregi, Kristina Aranzeta, M<sup>a</sup> Jesus Alberdi (erregina), (ezezaguna) eta M<sup>a</sup> Elena Gallastegi.

*Emilitak utzitako argazkia.*

## Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



*Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!*

DEITTU  
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Maria Pilar Agirrebeña  
Erantzuna: Obe



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**EDURTZA** Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Eguneroko menua eta pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



**IÑAKI IÑARRA**

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



**Kiru Muntaiak S.L.**

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Soraluzeko Zubia Antzerki taldeak  
aurkezten du..

# La Casa de Alba Bernardez

(Martin inspektorearen kasu berri bat)

NOIZ? Uztailaren 19an 22:30etan  
NON? Arane Kiroldegian  
SARRERAK? Goiara lurrindandan eta Kiroldegian  
SALNEURRIA? 3€

## JAIKETAKO HERRI OLINPIADAK

Uztailaren 25ian 18:30etan Plaza Barrixan

Animatu eta eman izena! Giro berua eta bustixa!



\* Era guztietako frogak: erotikoak, erresistentziakoak, inteligentziakoak...

\* SARI LATZAK:

120€ Puntuazio altuena lortzen dabenari.

90€ Bigarrenari.

60€ Saltserueneri.

\* Talde bakoitzak 7 froga gainditu behar ditu.

\* Izena ematen daben jentziaren artian zozketa eginda osatuko dira taldiak.

(Aurretik herri bazkarixa egingo da Kalebarrenen)

Izena emoteko: Pil-pilean, Gila, Arrano, Gaztelupe eta Gaztetxean dare zerrendak.

Antolatzailea:

PIL-PILEAN



Soraluzeko Udala





Fresaketa teknologia



SORALUCE S. Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

# "Gazte Txartela Euskadiko Kutxan Bakarrik"



Eska ezazu zure Gazte-txartela eta %50raino deskontuak izango dituzu Autonomia Elkarte guztietan eta Europako gainerako herrialdeetan.

Santa Ana, 18  
Telefona: 943 751 238  
Faxa: 943 753 103  
20590 Soraluze/ Gipuzkoa

Zurekin elkarlanean

